

EUSKAL ZINEMAREN GALA

Euskal zinemaren uzta oparoa ospatzeko gaua

IRENE ELORZA GEREÑO

Euskal Zinemaren Galak tokiko industriaren eta kulturaren urteko emaitzen ospakizun bihurtu zen, atzo, Victoria Eugenia antzokian. Estrainekoz emititu zen gala zuzenean ETBren bitartez, eta Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak egin zituzten aurkezle lanak. Izaroren musikak eman zien ongetorria bertan bildutakoei, zinema munduko profesionalei zein ordezkari politikoei. Ondoren, 70. Zinemaldian erakutsi diren 17 lanen lagin bat ikusi ahal izan zen pantaila handian. Aurkezleen umoreak harilkatu zuen gala labur bezain mamitsua.

Ekitaldian, Euskal Gidoilarien Elkartearen gidoi onenaren saria eskuratu zuten Mikel Gurreak eta Francisco Kosterlitzek, elkarlanean idatzitako *Suro* pelikularengatik. Eskertza hitzaldian azpimarratu nahi izan dute euskaldun bat eta ar-

gentinar bat elkarrekin lan egin dutela Katalunian kokatzen den pelikularen gidoi-a asmatzeko. "Gidoi bat idazteak hartu eman bat eskatzen du eta baita eskuzabala izatea ere", aipatu du Gurrea gidolari eta zuzendariak, Euskal Gidoilarien Elkartearen saria jasotzean.

El Vasco filmeko bi protagonista, Itziar Aizpuru eta Joseba Usabiaga aktoreak, igo ziren ondoren eszenatokira, Zinemira saria emateko. "Teknikaririk gabe zinema ezinezkoa litzateke, denok osatzen dugun puzzle bateko piezak baitira", esan zuten. Euskal zinema familia bat dela esanez agurtu zen Euskal Zinemaren gala, datorren urteko uztaren zain.

Amaitzeko, Albertso Gastesi zuzendariaren lehen filma, *Gelditasuna ekaitzean*, estreinatu zen atzokoan. Loreto Mauleon da zuzendari donostiarren lehen film luzearen protagonista nagusia.



Aitziber Garmendia, Jon Plazaola, Itziar Aizpuru eta Joseba Usabiaga, atzoko galan.

GARI GARAIALDE



GARI GARAIALDE

ZINEMIRA SARIA

Iaz zendutako Txema Areizagari Zinemira saria emanda, arlo teknikoan lan egiten duten profesionalak omendu ditu Zinemaldiak. Haren senideak Victoria Eugenia antzokiko oholtzara igo ziren orogarria jaso eta lankideen jarduna aitortzera. "Merezi duzu, Txemari, zure lanagatik, dedikazioagatik eta zinematikoko pasioagatik", esan zuten.

CHAMPAGNE
PERRIER-JOUËT

Fill
your
world
with
wonder

